



txillardegi

Hitz: Zer da zuretzat Aberri-Eguna?

Txil: Ez dakit Aberri-Egunaz mintzatuko naizen ala abertzaletasuna niretzat zer den esango dudanentz.

Nire ustez, Aberri-Eguna, Euskal Herriari *nazio gisa* dagokion eguna izan behar litzateke.

Iruditzen zait, ordea, badagoela aspaldi honetan eboluzio kaxkar bat jendeen artean. Hots, badirudi abertzale izatea gauza sentimentala dela zenbaitentzat. Horren arauera aski da jendeek zerbaitxo senditzea, ez dakit... eman dezagun euskal lurraldea, edo pestak, edo euskara, edo edozein gauza... Halako atxikimendu bat aski dela pentsatzen da. Aldiz, nire irudiko, hori, Aberriari eta abertzaletasunari beren mami guztia kentzea da. Bajorak eta Unamunok bazuten sendimendu laxo hori, Mauriac-ek ere Gironde senditzen zuen bezala.

Aberri-Egunari buruz gauza bera gertatzen dela iruditzen zait. Aberri-Eguna, Batzuentzat, zera da: nola esan? euskaraz kantatzeko edo Euskal Herriaz piska bat pentsatzeko egun bat. Nire ustez, Aberri-Eguna ez da hori. Aberri-Eguna, niretzat, Euskal Herriak *nazio gisa* dituen eskubideak errespetarazteko eta ospatzeko eguna da. Esan nahi dut, ez dela aski halako atxikimendu sentimental bat ukatea, Aberri-Eguna ez dela umore onean kantatzeko egun bat. Ez.

Abertzale batek, Euskal Herria *okupatua* dagoela sinesten du; euskalduna *euskaldun gisa* ukatua dela, Euskal Herria euskaldunen *herri gisa* zapatua. Hots, atzerritarrek okupatua, bi partetan zatitua, benetan okupazio betean bizi garela sinesten du eta goiz hastetik senditzen. Orduan, harentzat, Aberri-Eguna, Euskal Herriari *nazio gisa* dagoz-

kion eskubideak defenditzeko eta zertzeko eguna izan beharko litzateke. Hori da, niretzat, Aberri-Eguna. *Aberri-Eguna Euskadi Batu Askatu eta Euskaldunaren eguna da*; ala ez da ezer.

Hitz: Gaurko giro politikoan, nola ikusten duzu aurtengo Aberri-Eguna?

Txil: Egia esateko, ez dakit zer ari den prestatzen. Esaten dutenez, abertzale indar guztiek zerbait elkarrekin egingo dute. Beraz aurtengo Aberri-Eguna, denen artean, abertzale guztien artean egingo bide da. Edo behintzat, E.A.Jeltzaleak eta ETA-k —eta hone-la lehenengo aldiz— zerbait elkarrekin egingo dutela badirudi.

Oso inportantea izango da, zeren eta, Euskal Herriari, Herri guztietan bezala bait daude joera guztietako mugimenduak, eta normala da joera guztietako abertzaleek parte hartzea gauza horietan.

Baina, beldur naiz Madrilduek, euskal indar guztiek dei bat egin dutela ikusiko dutenean, neurri gogor batzuk hartuko dituzten, jendea Gernikara edo beste toki batetara bil ez dadin. Oso zaila izango da jendea toki batetara handizki biltzea. Hain zuzen ere, poliziak eginahalak egingo bait ditu holakorik ez dadin gerta; bereziki, gaur bezalako une politiko larri batetan. Bainan frankista indarren erakusketa nabarmena ikusteko parada emango zaie denei.

Hitz: Horri buruz, gaurko egoera politikoaz, zer diozu?

Txil: Mila aldiz idatzi dudana bezala, nik nahiago nuke abertzale guztioz "programa minimum" batetan elkartzea eta, abertzale-elkarte bat muntatuz, programa horren alde denok elkarrekin borrokatzea. Bistan da bide egokiena izango litzatekeela hori. Horretara jo behar dugu eta, are gehiago, Euskal Herria, halako batetan, leku askotan egin den bezala horretara iritsiko dela uste dut. Zorritzarez, ordea, eskaini zaigun epea ez dugu baliatu; nahiz 38 urtetakoa izan...

Badirudi, laster zerbait gertatuko dela Espainian. Behintzat, holako zurrumurruak badabiltza handik eta hemendik; alde bate-tik, Franco berriz gaizki dagoela; bestetik —aski da "Le Monde" irakurtzea— Espainian mementu kritikiko bat dela, kinkaldi bat badagoela. Hitz batez: errejimenaren azken egunak datozela.

Beste seinale bat ere: Espainiako Alderdi Komunista baitan zatiketa bat gertatu omen da. Ez dakigu zenbatetaraino sakona den baina, dudarik gabe, zerbait izan da. Ondorioz, "Euskadiko" Alderdi Komunista sortu dute. Horren helburua edo asmoa nahiko garbi dago: P.C.E.koek, Euskadiko Gobernuan sartu nahi dute; eta euskaldun jakera bilatzen dute.

Orduan, nahi badugu eta nahi ez badugu ere, badirudi Euskadiko Gobernuak, biharko egunerako, aukera politiko handiak badituela: E.A.Jeltzalea, P.S.O.E. delakoa, eta Euskadiko Alderdi Komunista barneratuko dituen euskal erakundea indar handikoa izango da, eta ez daiteke harekin kontatu gabe egon, nire ustez. Beharbada, batzuei ez zaie egokiena iruditzen, baina hola da. Beste arrazoin bat badago: Euskal Herriak, bai Iparraldean bai Hegoaldean, *berehala* behar du euskal aginte apur bat bederen. Gure herriak ezin dezake luzaz gaurko presinoa jasan. Nola edo hala, euskararen mailan batez ere, *oinarrizko instituzio batzuk* behar ditugu. Gure burruka "nortasun" batetan finkatzen baita ("Lutte pour une identité"), eta euskalduntasuna zinez baitago azken hatsetan.

Gainera, eta politika "daitekeenaren artea" izaki, beste elkarerik muntatzeko astirik gabe, gaur egun dagoen instituzio horri heldu behar diogula iruditzen zait. Zerbait gertatzen baldin bada Espainian —eta, antza, aurki gerta daiteke— hego euskaldunok ez dugu eskuak hutsik agertu beharko. Holako egoera batetan, "maximalismo" bat, oso kaltegarria gertatuko litzaugukeela beldur naiz. Ahal denari eutsi beharko; bi baldintza bete behar, halere, Euskadiko Gobernuak:

* *Nafarroa* inolaz ere Autonomi-eskualdetik at ez onartzea. Euskal Herriaren habe nagusia Nafarroa da. Denok gara, nazio-tasunez, nafartar; eta Euskadi ez da, izan, Nafarroa berriaren izena baizik.

* *Gazteria* inolaz ere, era berean, ezin daiteke kanpoan utz. Berrogei urte pasa ondoren, belaun berriari eman behar zaio bere lekua, eta, zaila bada ere, euskaldun indar berriei tokia eskaini.

Euskal Gobernuak piztuko bada, *gaurkotuz* piztuko da; eta ez, kikilduta aspaldiko molde zahartuetara bilduz.